

Baleike

Zumaiako herri
aldizkaria.
8. zbkia.
1995ko urtarrila.
100 pzta.

Agur
Gomensago
eta Olentzero



Abelin Linazisoro *Xaturrekin* hizketan

Oparia:
Joseba Osaren
ipuin irabazlea

Kirola:
Zumaiako
nesken
futbol taldea

Natura:
Gure faduretan
izandako sei
txori bitxi



Javier Carballo utzitako argazkia

Aspaldiko argazkia da ikusten denez, eta orduko portuko sarrera agertzen zaigu, gaur egun Amaiako plaza dagoen tokian.

Paol aldeko ensantxea egiteko zegoen oraindik ere, eta itsasontziak ia San Telmo kaleraino sartzen ziren. Argazki hau, Errotako ixkiñatik (oraingo estankotik) aterata dago.

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa fundazioa
fundación kutxa

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

ZUMAIako INSTITUTUA
Aita Mari Auzategia, z/g
20750 - ZUMAI
86 08-09/86 08 10

Zumaiako Udalak diruz lagunduriko aldirakaria



BALEIKE

HERRI ALDIZKARIA

Foronda kultur etxea
tfnoa: 86 10 56

argitaratzailea

**ZUMAIAKO
GAZTE
BATZORDEA**

Ian taldea

Iratxe Aizpurua
Esther Martinez
Itziar Manzidor
Xabier Azkue
Igor Uranga
Josu Waliño
Gorka Zabaleta

Kolaboratzaileak

G.E.G., Natur taldea,
Miriam Romatet,
Aitor Leiza, Izar Martin,
Imanol Manterola, Dani
Carballo

publizitatea

861056 tlf.

inprimategia

Gertu Koop. E.

(Zubillaga - Oñati)

tirada: 600 ale

Lege gordailua: SS-405/94

**BALEIKEk ez du bere gain
hartzten aldizkarian
adierazitako
esanen eta iritzien
erantzunkizunik.**

Argazki Zaharra.....	2
Hitzaurrea.....	3
Iritzia: <i>Paper birziklapenari buruz</i>	4
Gutunak.....	5
Hitz eta pitz.....	6
Ze Berri?: <i>Julene Azpeitia sari banaketa</i>	7
Elkarrizketa: <i>Abelin Linazisoro "Xatur"</i>	10
Inketa: <i>Gabonetako argiak</i>	11
Erreportaia: <i>Olentzero ala Gomensago</i>	14
Komikia	16
Natura: <i>Txori bitxiak</i>	18
Antimilia: <i>Gerrarako jostailuak</i>	20
Sexualitatea: <i>Abortoa</i>	22
Izerdi Patsetan: <i>Neska futbolariak</i>	24
Kultur agenda	26
Bertsoak	27
Musika: <i>Anestesia eta Morau</i>	28
Denborapasak.....	30
Merkatu txikia.....	31
Lehiaketa	32

H itzaurrea

Urte berri bat heldu zaigu eta urte berriarekin gu geuk ere Baleike berri innobadore eta hobexeago bat aurrera ateratzeko asmotan abiatu gera. Orain dela hilabete batzuk, proiektu zoro honekin hasi ginenean, ez genekien zehazki zerekin topatuko ginen mugarik gabeko ibilbide honetan. Hala ere, poliki-poliki bagoaz aurrera eta espero dezagun 95. urte honek onura handiak ekar diezazkigula. Noski, honetarako zure, bai zu Joxe Mari, bai zu Karlos, bai zu Puskas, bai zu Maria Luisa, baita zu ere Martin.... oi ! barkatu, bai zu herritar zaren horren laguntza guztiz beharrezkoa degu, ez hutsegín eta ia denon artean lortzen degun untzi hau flotean duintasunez mantentzea.

PREMIAZKO TELEFONOAK:

Kultur Etxea	86 10 56	Ludoteka.....	14 32 64
Polikiroldegia.....	86 20 21	Tren geltokia.....	86 11 27
Gurutze gorria.....	86 10 93	Taxi geltokia.....	86 13 60
Udaletxea.....	86 02 50	Bake epaitegia.....	86 00 67
Gizarte Zerbitzuak.....	86 22 00	Posta.....	86 15 00
Osasun zentrua.....	86 08 62	Udaltzaingoa.....	86 18 70
San Juan Egoitza.....	86 12 73	Pilotalekua.....	86 2172
Pentsiodunen Egoitza.....	86 17 00	Larrialdi zerbitzua.....	46 11 11
Musika eskola.....	86 11 83	Informazio sexuala.....	32 04 44

**SORTU DA ZUMAIAKO
HERRI ESKOLA**

1994ko uztailearen 20an Zumaian gertatu zena ez zen nolana hiko gauza izan. Hilabete batzuren elkarrizketaren ondorenean Zumea Ikastola, Julene Azpeitia Ikastetxe Publikoak eta Zumaia Institutuak Zumaia Herri Eskolaren Elkarketa Agiria sinatu zuten. Une honetantxe sortu zen Zumaia Herri Eskola izango denaren kimu berria.

Ez zela nolana hiko diogu, eta horrela da. Honen ondorioz, 2 urtetatik 20 urte bitarteko zumaia guztiei kalitatezko irakaskuntza publikoaren ateak irikita geratzen zaizkie. Eta hau ez da txantxetako; ohartzen bazarete, lehen haurtzaro aldiaren eskolan sartu eta uniber-tsitatera iristerainoko irakasketak herrian bertan egin ahal izango dituzte gure seme-alabek.

Uztailearen 20an sortu zen proiektu horrek ahul eta hauskorra bazirudien ere, koxkortzen joan da, eta gaur egun baditu bere babeserako sortutako zenbait lagungarri.

Urriaren 17an hiru ikastetxeen arteko Batzordea eratzeari ekin zitzaion, eta honekin elkarte prozesua martxan jarri. Era honetan, egun ezagunak ditugun ikastetxeak desagertuz joango dira, gure eskola berri hori indartu eta sendotzen doan heinean.

Baina sortu daitezkeen lanak

GUTUNAK

**zurea dezu atal hau, nahi
dezuna esateko, nahi
dezuna idazteko, nahi
dezuna zoriontzeko, ala
nahi dezunari buruz
kexatzeko.**

asko dira, eta batzorde bakar bat gauza gutxi behar guztiei erantzuteko. Hau ikusiz hiru lantalde eratzea erabaki zen, honako hauek direlarik: Eraikuntzako, hau lehengo eraikinen egoeraz eta berriaren eraikuntzaz arduratuko da; bigarrena Elkartzearena, eta hau bateratze pedagogiko eta irakaskuntzari zuzenki datzekien gaitiaz arduratuko da; eta azkenik Zabal-kundearena, eta honen betebeharrak guztien lanen berri zumaia guztiei ematearena izango da.

Oraingoz hemen bukatuko dugu gaurkoa, eta inongo berririk dugunean, biziki saiaturako gara zuei ezagutarazten. Hauxe baita gure erronka: zumaia guztien eskolarik onena antolatzea; eta zuen laguntza, partaidetza eta begirunerik gabe ezin izango da hori lortu.

Milesker izan duzuen pazientziatik eta laster arte.

**ZUMAIAKO HERRI
ESKOLA****EUSKAL MUSIKA NOIZ?**

Egia esan aspaldi konturatu ginen gure herriko tabernetan nahiko musika eskasa jartzen dutela, eta lehen ere azaldu zen gutun bat, taberna batean reggae gehiegi jartzen zutela salatzen zuena, baina ulertzekoa da guztion gustoak ezin direla bete. Baina benetan lotsagarria iruditzen zaiguna euskal musikarekiko duten tratamendua da.

Zumaia ia taberna guztietan dago arazo hau, batzutan bestetan baino gehiago bada ere. Ez da gure asmoa taberna batzuk salatu eta beste batzuk salbatzea, baina asteburu batean zaila da "zirkuito normala" egin eta Zarama, NG, LTT, Ama Say, Hertzainak edo antzekoren bat entzutea.

Askotan esan da, euskal musikaren munduan barietate eta musika mota ugari lantzen dela, beraz bertan aurki daitezke belarri guztiak asetzeko aukerak. Gainera, ez da ahaztu behar, Zumaia gaztedia gehiago batetan euskalduna dela, eta beraz ez dagoela zertan erdal musikarekin matxakatu beharrik "martxa" jarri nahi bada. Martxa era askotakoa dago, baina guk behintzat nahiago dugu euskal martxa.

E.I.
N.A. 44.138.267.

**LANDARE
LOREDENDA**

**Baltasar Etxabe, 5
Tel. 862472 ZUMAI A**



PAPER BERZIKLAPENAREN INGURUAN

Zumaiako Eguzki

Papera biltzeko edukinontziak Zumaian eta Gipuzkoa guztian zehar jartzearekin, gure erabateko adostasunaz hitz egin nahi genuke lehenik.

Gure ongi etoririk beroena ematen diegu kaleetan jarri berri dituzten edukinontzi urdin horiei, eta era berean jendea hauek erabiltzera animatzen dugu. Bazen garaia Gipuzkoako Foru Aldundiak hain beharrezkoa den pausu hau eman zezan, zabor bilketa selektibo baten bidean, eta oso gustora gaude alde horretatik.

Dena den paper biltetarako edukinontzi hauen erabilera bultzatzeko egin den sentsibilizazio kanpaina, ez dugu uste behar zen bezalako izan denik. Pentsatu nahi genuke bestetik, paperezko zabor kopuru handiak sortzen dituzten almagar eta abarrei arreta berezia eskeiniko zaiela. Gainera kanpaina honetan gure ustez oso garrantzitsua den ideia baten inguruko sentsibilizazio kanpaina bat ezinbestekoa dela iruditzen zaigu, hau da: ez da nahikoa paper biltetarako edukinontziak ipintzea, paperaren gehiegizko erabileraren murriz-

ketaren beharraz hitz egin beharko litzateke. Beti baita ekologikoagoa ez alferrik erabiltzea, birziklatu behar izatea baino.

Tamalez gaur egun erabiltzen den paper gehiena ez da birziklatua eta gainera kloroaren bidez zuritzen da.

Kontuak kontu, paper biltetaren kanpainak hainbat hutsune baditu ere, ez da hau gehien kezkatzen gaituena, Foru Aldundiaren azpijokua baizik. Batetik paper biltetaren kanpainari ekin badiote ere, itxura ekologistagoa hartuz, atzetik guztiz kontrajarria den joku bat dakarte: errausketa zentrua edo inzineradorarena hain zuzen ere. Hauxe da

zaborraren benetako arazoa, kutsadura fabrika bat besterik ez dena. Honek zaborra dioxina, ferrano, gasak eta abarretan bihurtzen du ingurugiroarentzat eta ondorioz guztiontzat oso kaltegarria izanik.

Errausketa zentru hauek zabor asko behar dute energia sortu eta errentagarriak izateko. Beraz alde batetik zaborraren bilteta selektiborantz jotzen dugun artean, bestetik errausketa zentru bat jartzen badugu, azken honi etekina ateratzeko bi aukera bakarrik daude: birziklapenaren kontu hau moztea, edo zaborra inportatzea.

Hauexek dira Foru Aldundi "ekologista" honen bi aurpegiak. ■



Foto Gar
Aldizkari, egunkari
eta opariak
Erribera, 21

AMETSA
Goxokidenda
Basadi auzategia 7-A

Itzurun
ATEAK-PUERTAS
Era guztietako
egurlianak
Itzurun zuhaitzbidea
Tlf: 861565 - 143446

HAU DEK ENPATXUA



Bertsoak:
Felix Aizpurua

**Gabon egunez afaldu nuen
apetito latzarekin.
Langostino ta esparraguak
urdai-azpikoarekin.
Ondoren aza gozo gozoa
ozpin pixkat batekin.
Postrea goxokiekin.
El Lobo ta almendrokin.
Gainetik txanpainarekin.
Nahiz ta ondoren amaitu nuen
mantzanilatxo batekin
tripa bueltaka hasi zitzaidan
kriston enpatxuarekin**

**Urte zaharrez berriro ere
gorputza turroian eske.
Ta egun hortan hori jaterik
nahiz ta nik ez nuen uste
hala ta guztiz probatu nuen
gabonetan hainbeste.
Apetito latza fuerte.
Gainezka tripa ta heste
igaro pare bat aste.
Horrelakorik ez dut izango
lasai ibili naiteke
turroi gehiago ez baitut jango
datozen gabonak arte.**



**Joanito
Dorransoro**

GAZTERIA

Gazte ugari bizi zarete gaur zorionez Zumaian. Herri nahiko gaztea da beraz gurea eta hori izugarriko aberastasuna da, laister poliki poliki zahartzen hasiko baldin bazaigu ere.

Kirol asko egiten du gaur gazte jendeak Zumaian, sekula baino gehiago nik uste, nahiz uretan igeri, surf edo arraunean, nahiz pelota edo baloiarekin eskuz zein hankaz, nahiz bizikletaz edo oinez, denetik egiten dela esan genezake; eta ez mtalak bakarrik, neskak ere ari dira sartzen mundu garrantzitsu honetan. Kirolak ongari baldin bazaizkigu ikasketak ez dira gutxiago eta esan beharrik ez dago arlo honetan ere asko aurreratu duela gure gazteriak eta gaur entzun dezakezu unibertsitateko edozein karrera egiten ari dela gazte zumaiarra. Bapateko errepasso labur honekin jarraituz, azken bolada honetan musika sailean sortu zaizkigun rock talde gazteak aipatuko ditut, Zumaiak duen musika tradizio oparoan txertatuz. Sorkuntza lanetan ekin diozuten bidea jarraiki arte eder horren jakinduriaren zirrikituak ikasiz eta landuz kalitatea lor dezazuela gazteriaren eta herri osoaren atseginerako.

Baina ezin ditugu ahaztu gainean dituzuen ekaitz laino beltzak ere. Hementxe dituzue aurrez aurre gaurko gizartearengandikako eraso beldurgarriak; soldaduskaren inposaketa bortitza, kontsumokeriaren iruzur maltzurra, drogaren pozoen hilgarria eta batez ere langabeziaren mamu beltza. Sutan jartzean probatzen da eltzea, bertsolariaren esanetan, eta arrisku eta erronka gogorre erantzutean berriz gaztea esango nuke. Erasoei aurre egin, etsaiak burukatu eta zailtasunak gainditzeko kemena eta indarra bere baitan topa dezake gazteak, horretarako behar duen euskarria lagunarteko adiskidetasunean edota familiaren babesean aurkitzen asmatu ezkerro behintzat. Gazteria da herriaren aberastasunik ederrenetakoa.



MILA ILE APAINDEGIA



Ile - kosmetikan diplomatua

Foruen Enparantza, 13 - 1 Tfnoa: 861160
ZUMAIA

Belardenda

Paki

OSASUN NATURALA



erribera 2
Tlf: 143156

ONCE

**JOXE
MANUEL**

**Kupoi batzuk
erosi eta ...**

ZORTE ON !!

Jon A. Fourcade, ipuin onenaren egilea

Abenduaren 16an Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren sari banaketa izan zen

Bigarren saria Felipe Juaristi azkoitiarrantzat izan zen eta zumaiar onenaren saria Joseba Ossak lortu zuen. Inoiz baino ipuin gehiago aurkeztu omen dira gainera, aurtengo edizioan.

Baleike



Alkatearen eskutik jaso zuen Josebak bere saria. ZORIONAK.

Joseba Ossa:

"Gauza dibertigarri eta era berean orijinala egin nahi izan dut"

.....

Jon Alonso:

"Bortxakeriazko ipuin bat da nirea, Europa edo ia munduko edozein tokitan gerta daitekeena"

Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren VII.edizio honetan, Jon Alonso Fourcade iruñearrak eramandu 300.000 pztako saria, "Zu lehenago" ipuinarekin. Bigarren saria eta beraz, 125.000 pztako saria Felipe Juaristi idazle ezagunarentzako izan da, "Bost bidaiari" ipuinagatik. Eta azkenik, zumaiarren arteko ipuinik onenaren saria Joseba Ossarentzat izan da eta honek ere 125.000 pztako saria eramandu, "Nora hoa, Kixote Mantxakoa?" izenburutzat duen ipuinarekin; hauxe da hain zuzen ale honekin oparitzen dizugun ipuina.

Azaroaren 16an izan zen sari banaketa Foronda Kultur Etxean, eta han izan ziren Joxe Mari Zeberio Eusko Jaurlaritzaren izenean, Antonio Campos Kutxaren izenean, Rikardo Peña eta Montse Arana Zumaiako Udalaren aldetik, eta azkenik Joxean Agirre epaimahaikoen ordezkaria ere han izan zen.

Azken honek adierazi zuenez, sekula baino lan gehiago aurkeztu dira, guztira 40, hauen artean 6 zumaiarrenak. Maila ere oso altua izan da aurten, inoiz baino hobea ia. Epaimahaikoen ustez idazle konsagratu gehiago ere ba omen ziren lan onenen artean. Sariketa honek tira edo gantxo bat baduela

esan nahi du honek eta etorkizun polita ere baduela.

Aipatu beharra dago, sari banaketaren amaieran OIHULARI taldeko bi pailazok sari banaketan eta literatura munduaren parodia oso parregarri bat egin zutela, han bildu ginen guztion parreak eta algarak sortuz. ■

Arkupe
Okindegia
eta gosariak
Kale nagusia, 2 ZUMAIA

L PRACTICAS **ZUMAI A** **STOP**

AUTO -ESKOLA

- * Gida-baimen guztiak ateratzeko baimendua
- * Praktika eta azterketak Azpeitian
- * GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 behea 20750 ZUMAIA

☎ 861018



*Gabon egunean aurten urrezko ezteiak bete dituen **GABON KORUA** ibili zen kalez-kale behartsuen alde dirua bilduz.*

***GOMENSAGO ETA OLENTZERO:** biak pasiatu zituen ikastolak Gabon egunean baita ere, kantu eta eskuko-soinuz herria alaituz.*



LABURRAK

KIROL PORTUARI BURUZKO 15 GALDERA

Zumaia Bizirik taldeak triptiko bat buzoneatu berri du, kirol portuaren proiektuaren inguruan 15 galdera luzatuz herritarroi, eztabaida eta gogoeta ireki nahian gai honi buruz.

Kontu honekin, **urtarrilaren 13an 7 t-erdietan** Profesional Zaharrean bilera zabal bat egingo dute, herritar guztiak gonbidatuz. Bertan, beraien iritzia azalduko dituzte, eta bide batez, guztion ideiak jaso.

ISMAELEK JASO DU SENTENTZIA...

Ismael Manterola martxoan epaitutako zumaiar intsumisoak, egun hauetan jaso du behinbetiko sententzia. Jakingo duzuen ez epaiketari emandako sententzia 4 hilabetetako kartzela zigorra izan zen, baina fiskalari gutxi iruditu zitzaionez, Auzitegi Probintzia-laren aurrean errekurritu zuen. Auzitegi horrek abenduaren 7an jakinarazi zion Ismaeli ez zuela fiskalaren errekurtsioa onartu, baina sententzia aldatu zuela 4 hilabetetik 12 hilabetetara pasatuz.

...ETA JUAN LUIS OTSAILEAN EPAITUKO DUTE

Juan Luis Blanco intsumisoak, datorren urteko otsailaren 14an epaituko dute Donostiako Epaitegian. Gogoratuko duzuenez, joan den uztailan epaitu behar zuten gazte hau, baina epailearen erabakiz jakin gabeko datara atzeratu zioten. Epailearen iritziz kode penal berria onartzeak mesede egingo zion, gartzela zigorrak kentzen baitzuen, orain denok dakigu Belloch ministroak idatzitako aurreproiektuan ez direla mota horretako zigorrak desagertzen.




Natur taldeak VI. NATUR IHARDUNALDIETAN barne "Zuhaitzak eta egurra" erakusketa antolatu du.

Honekin batera hainbat bideo, hitzaldi eta diapositiba emanaldi izan dira, egun osorako Bertiz Jaurerrira eginiko irteera batetaz gain.


Erakusketan gure inguruetan aurki ditzakegun zuhaitz mota ezberdinen ezaugarriak zeuden ikusgai, eta hauekin batera egurrez egindako artelanak eta egurra lantzeko lanabes eta tresna bitxiak.

Argazki kurioxoak



Aurten Belengo izarrak jaiotza gainean gelditu beharrean, Gernikako zubiaren gainean geratzea erabaki du. Hau dela eta, Jexux haurtxoa kotxe kapota batetan bertaraino eraman behar izan zuten.

Olentzerok ere aurkitu du gure aldizkaria goxo-goxo irakurtzeko astia.



 **Ur-gintza SL**

SANEAMENDUA - KALEFAKZIOA - GAS INSTAKUNTZAK
GAS NATURALA - INPERMEABILIZATZEAK
ERAIKUNTZA LANAK - BAINUAK
SUKALDEKO ALTZARIAK

Iraeta auzoa, z/g

Tel: 148082

78 Posta kutxa

Fax: 148081

20740 IRAETA - ZESTOA

NIKOL-ENEA TABERNA

**Amaiako plaza
ZUMAIA**

Tfnoa: 861440

ABELIN LINAZISORO, "XATUR" GOENKALEN**"Ustegabeko gauza izan zen Goenkalen sartzea"**

Azkenaldian telebistan asko agertzen zaigu bibotedun artista hau, baina betitik maite omen du zine eta antzerkiaren mundua. Adar jotzen ere ona dela badakigu eta gezur bat baino gehiago sartu dizkigula iruditzen zaigu, gainera.

Baleike

Nolatan animatu zinen proiektu honetan sartzera?

Animatu ez, ni paroan nengoen. Dobladore lanak beheraka egin zuen eta periodikuan ikusi nuen nola 10etik 70 urte bitarteko jendea behar zuten. Kurrikuluma presentatu nuen Bilbon: antzerkian ibili nintzen gaztetan, erdi-zuzendari ere bai pare bat lanetan, AEKn irakasle ere egon nintzen eta gero hiru urte bikoiztaile modura.

Gero entrebista bat egin zidaten eta aurrean zein egongo eta Andu Lertxundi! Eta berak esan zidan: "Hire antzeko tipo bat behar diagu". Handik selekzio bat, 200 bat lagun edo Miramonera jua ginen eta barruan geratu nintzen. Ustegabeko gauza bat izan zen.

Gogorra izan al zen lanean hastea?

Hasieran banuen kezka moduko bat, Nere pertsonajea perfilatu gabe zegoen eta nahiz eta 2 edo 3 esaldi bakarrik esan behar, nerbioso, urduri, jartzen zera; pentsatzen dezu "Nik

hanka sartzen badiat dana errepikatu beharko diate". Entsaioak egiteko asti haundirik ere ez dago; aurreko sekuentzia grabatzen ari diren bitartean entsaiatzen degu gurea, eta besteek lehenengoan asmatzen badute, hurrengoak ia entsaiatu gabe gelditzen gera. Erlojuaren kontra ibiltzen gera dana goizean grabatu behar izaten delako. Hori bai, testua etxean ondo ikasita jua behar izaten degu.

Pertsonaje erreza da, ez dauka konplikazio haundirikan

Nahiko gidoi aberatsa erabiltzen dezue, ezta?

Gidoilariak, nik uste, lan polita ari direla egiten, hizkuntza aldetik ere zaitzen ari dira. Gero gainera hori dana Andu Lertxundik orrazten du, bera da gauza horien arduraduna. Zaharrei ere asko gustatzen zaie, hizkera nahiko erreza erabiltzen delako.

Espero al zenuen GOENKALEK halako arrakastarik izango zuenik?

Ke ba! Espero inork ez, apustu bat zen. Nik uste arrakasta duela, historia bakar bat ez delako. Nola hain nahastua den, gazteen roiloak, zaharrenak, negar egitekoak, parre eginaraztekoak eta danetik nola dagoen, pupurri bat da eta asmatu



Kalean ere ez omen dute pakean uzten gizajoa.

**EGOKI
ERLOJU DENDA**

E: Gurrutzaga plaza, 6
ZUMAIA

JZETA
orrastegia

Urumea 6
Tlf: 862083



egin dute.

Kalean ere ezagutuko zaituzte ezta?

Kalekoa, harrigarria da ze indar daukan telebistak. Durangoko Azokara jua ginenean, jode "Xatur!, Xatur!" hasten zitzaidan jendea, eta danek parre egiten zuten; eta ni ere gustora.

Xatur zure pertsonaiarekin identifikatuta sentitzen al zera?

Bai, bai. Pertsonaje erreza da, ez dauka konplikazio haundirika. Batzutan haserratuta, baina gehienetan umorez eta adarra jotzen. Pertsonaje polita da, ia ia neuri egokituta dagona.

Jende asko dago GOENKALEkin engantxatuta ...

Gazte jendea ez dakit, baina zahar asko badakit erabat engantxatuta daudela, bitan ikusten dutela kapitulo bera.

Nik uste arrakasta duela, historia bakar bat ez delako

Luzerako izango al degu GOENKALE?

Gidoilariak pentsatu dute hiru hilabetetan istorioa era batera egitea; epe hori ezuste, sorpresa haundi batekin amaitu, eta gero beste hiru hilabetetan istorioa beste ildo batetik eramatea, pertsonaia berdinekin izan arren. Pertsonaiak beharbada tokiz ere aldatuko gaituzte. Hau jendea ez aspertzearren izango da.

Hau bukatzen denean, espero al dezuzte pelikularen batean edo



Oso giro omen dago bertako aktoreen artean

antzerkiren batean parte hartzea?

Aukera baldin badaukat, ahaleginduko naiz, paroan nago eta. Ea honek atea irekitzen dizkidan beste zerbaitetan parte hartzeko.

Lehenago dobladore lanetan ere ibili zinen. Lan kurioxa ez al da?

Lan polita da, neri gustatzen zait behintzat. Hasieran beti bezela urduri egoten zera, baina behin trukoa hartu ezkerer polita da. Begi bat pantailan eduki behar da eta bestea papelean. Eszena oso motzak izaten dira gainera, TAKE izenekoak, minutu batekoak edo; gaizki irteten badu, errepikatzen!. Papelean sartu beharra dago hemen ere, tonu egokia hartzeko. Aurrena orijinalean nola esaten den entzuten da, eta honek asko laguntzen du.

Ahotsa ere zaindu beharko dezue ezta?

Bai, noski. Katarroa baldin badaukazu edo eztarria gaizki, ezin dezuzte doblatu. Batzuk hor ibiltzen dira bufandarekin, edo regaliza txupatzen.

Antzerkian ere ibili zinela aipatu dezuzte lehen ...

Mertzedariotan ibili nintzen bitartean, umetan, bi antzerki egin nituen, bietan protagonista; Luistarrekin ere antzerkia egiten zen orduan eta 14-15 urtekin papel txikiak egin nituen. Migel Anjel Etxeberriak ere antzerki bat prestatu zuen eta bera zuzendari zen eta ni laguntzen aritu nintzen. Arrakasta polita izan zuen antzerki harek, Eskola Txikian egin genuen.

Goenkaleko gidoilariak lan polita ari dira egiten

Gero Zumaian, 68an, "Ertzaina etxean" - erderaz "Llama un inspector"- prestatzen hasi ginen. Nik elkarrizketa batzuk moldatu egin nituen, Bilbon gertatuko balitz bezela. Antzezteko dana listo zegoenean, panelak eta guzti, ezin izan genuen antzezlana egin, alkateak baimenik eman ez zigulako, altako kableetan

Surf

Torre Luzea, 2
Tel. 83 50 24
20800 ZARAUTZ

Erribera, 2g
Tel. 80 23 69
20750 ZUMAIA

Endaizeta zumaia

- * SUKALDERAKO ALTZARIAK
- * ELEKTROGAILUAK
- * BAINURAKO BEHAR DUZUN GUZTIA

Erribera, 8
Telefonoa: 861894

7 MARES

ARRAIN ETA MARISKOAK

BARAZKIAK ETA AURREZ PRESTATUTAKO JAKIAK

7 MARES IZOZTUAK

ikurrina bat jarri zutela eta. Jendea asko desanimatu zen.

Zine mundua ere oso gustokoa omen dezu. Noiztik hori?

Ba betitik, umetan jaiero-jaiero juaten ginen zinera. Mutil koskorretan abuztuan Amayan egunero botatzen zituzten zineak eta guk egunero pelikula bat ikusten genuen. Berdea edo morea, porteruak igual-igual uzten zigun sartzen, kliente onak ginelako.

"Mayores de 18" eta holakorik ez al zegoen ba?

Ez. Orduan danak ikusteko modukoa TXURIA izaten zen; gazteentzako URDINA zen; haundientzako ROXA; haundiek ikustekoa bai ta ez, dudakoa zena MOREA zen; eta inork ikusi ezin zuena, "Gravemente peligrosa" BERDEA zen. Orduan Luistarretan panel bat zegoen eta han jartzen zuten. Guk, hala ere, danak ikusten genituen.

Amayara pelikula oso onak ekartzen zituzten

Eta dirua nondik ateratzen zenuten ba?

Arranplastikan ateratzen genuen, urazpitikan. Orduan Hotel Amayan frantses asko biltzen zen, eta hauek arranplara dirua bota eta guk jasotzen genuen. Zineak pezeta bat balio zuen, baina guri perro haundiak eta txikiak botatzen zizkiguten. Karamelotan eta ez genuen batere gastatzen.

Gainera frantsesak diru gehiago



Betidanik egon da zine eta antzerki munduari lotua.

botatzeko, erderaz "Echen perras que sacamos con la boca" esaten genuen; behean eskuakin hartu eta ahoan sartzen genuen dirua, eta "Ulala, ulala" hasten ziren frantsesak. Hantxe ibiltzen ginen danok daldarrez, diru kontatzen.

Lehen gainera bi zine baziren herrian ...

Bai, Amaya eta Maitena zeuden orduan, eta pelikula onak beti. Zestuatik eta Azpeititik jendea etortzen zen Zumaira, jende asko. Amayara pelikula oso onak ekartzen zituzten, Donostian estrenatu gabekoak ere bai tartean. Gogoratzen naiz Zumaian pelikula bat ikusi eta nola "Film ideal" aldizkarian irakurri nuen Madriden bi astetara estrenatu behar zutela.

Zine-foruma nola sortu zen?

Guraso Elkarteak pentsatu zuen interesgarria izan zitekeela, eta neri deitu ninduten. Orduan 19 urte izango nituen eta 3 urtetan edo zine-foruma egin genuen igande goizetan. 11 t'erditan izaten zen sesioa. Pelikula aurkeztu, ikusi eta eztabaida izaten zen

pelikulari buruz. Hamabostean behin izaten zela uste det, eta jende asko etortzen zen.

Gero nola segi zuen Zine-Forum kontuak?

Ni soldadutzara joan eta bost urtean ez zen batere egon. Gero Aita Mari ireki zuten eta Graxian Galarraga, Korta, Eizagirre eta talde bat Bar Metron bilerak egiten hasi ziren eta Zine-Forum martxan jarri zuten. Gero 76an edo, neu ere sartu nintzen talde horretan. Orduan Aita Marin oso pelikula txarrak botatzen zituzten, distribuidora onekin lana egiten ez zutelako. Guk Zine-Forum aprobetxatu ginun pelikula komertzial onak ekartzeko; orduan hasi ginen zikloak egiten, gerrako zikloak, parre egitekoak, melodramak, ... kriston arrakasta izan ginun orduan.

95erako ze asmo dezu?

Oraingoz 4 pelikula aukeratu ditugu eta lehen bezela 15ean behin botako ditugu. "El café irlandés", "Morir todavía", eta "Fresa y Chocolate" behintzat ekarri nahi genituzke. ■

leize
TABERNA

Juan Belmonte, 6
Tel. 860415 ZUMAIA



Foto Amertze

Erribera Kulea, 6
Telefonoa: 86 17 07
Fax: 86 17 07
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)



Amaiako plaza, 7
Tel.- Fax: 862385
20750 ZUMAIA

**Zer iruditzen
zaizkizue Zumaian
gabonetan jartzen
diren musika eta
argiak**



Lourdes Iribar:

Aurten aldatu ein dituzte, orain arte behintzat nahiko exkakak izan dia. Musika ere, nahiko txarra. Beste herriak txikio izanda ere, musika txukuno ere badaukate.



Feli Aizpuru:

Ba, rollo bat. Ze gure etxeko balkoian jartzen zuen lengo urtearte altaboza. Ta nazka-nazka einda geunden. Argiak ere dagon krisisakin, fuera hoiek danak. Alperrik dirua gastatzia, diru hori beste gauzetarako hobe.



Joseba Kalparsoro:

Ez zait batere axola argiaren asuntua. Musika argia baino okerragoa iruditzen zait. Baina orokorki ez det behin ere hortaz pentsatu, ez zait burutik ere pasa.



Arri Zubimendi:

Alaitu egiten duenez, gustatzen zait. Pixkat elegantio jartzia ez zen gaizki egongo. Beti leku berdinean jartzen dituzte, eta Larretxon ere jartzea gustatuko litzaidake.



Kandido Uranga:

Ez det gehiegi pentsatzen hortaz. Musikari dagokionez, baldin badago arrazoirik egoteko, dagoela. Eta ez badago arrazoirik ez egoteko, berdin. Inor baldin badago alde edo kontra, dagoela.



Maria Pilar Mujika:

Piztu iten du pixkat, azkeneako nazkau iten bagea ere. Tristurak ematen dit neri pena, argitasuna beti ondo dao. Musika ere ez zait batere gaizki iruditzen.



Mikel Artetxe:

Argiari dagokionez, herria alaitzen du, bestela hila gelditzen da musika hobetu liteke, baina ez dago gaizki, gabon girua sortzen du.



Jose Manuel Sesma:

Argiak ondo iruditzen zaizkit, ambiente pixkat jartzen dutelako. Musika ere, ondo dagoela uste det. Jeneralian ez dago gaizki.

Olentzero ala... Gomensago

Agian gaurko haurrek, eta hain haurrak ez diren askok ere, ez dute Gomensago gogoratzen. Zumaiako Olentzero partikularra dugu Gomensago, gabonetan opariak ekartzen dizkiguna, eta gabon egunean abesten diogunean, goxoki eta txanponak botatzen dizkigun pertsonaia.

Oraindik ere, ikastolak ateratzen duen gabon koruan, Gomensagoren irudi bat eramaten da, eta bere abestia abesten da herriko kaleetan barrena.

Nor den eta nor izan zen jakin nahi izan degu, eta hortarako **Orrua** aldizkaritik **Trabuko** etorri zaigu, garai bateko gabon kontuak kontatzera.



40ko hamarkadaren hasieretan jaiotako haurrontzat Gabonak festa oso alaiak izaten ziren, zenbait zirkunstantzi ezberdin elkartzen bait zen: oporrak, festa giroa, jatordu onak... Baina zalantzarik gabe, eskolara joan beharrik ez izateak, oporrak ziren guretzat zorientasun guztiaren iturri, ze, zumaiako alkate frankista famatu batek ekarritako fraile *merzedario* ezjakin, espagnolista, antieuskaldun eta jipoizaleen eskolara joan behar hau eguneroko tortura izaten zelako

(behar bada berdintsu gertatuko zitzaien *maixuetako* mutilei edo monjetako neskei). Dena dela Gabonetan festa giroa izaten zen nagusi eta hau 24 goizetik nabarmentzen zen. Goizean goiz, 9tarako laguntaldea bildu eta etxez etxe ibiltzen ginen zaku zuri bana eskutan genuelarik "Niño Jexux-en eskian".

Garai hartan dirua ez zen gehiegi ikusten eta opariak normalki janariak izaten ziren: pikumalatuak, patxak, mandarinak,

abeliñak, bonboiak, almendrak, pazientzixak, laranja bat edo beste, opilak eta oso etxe gutxitan zenbait txanpon edo kartoizko kajetan etortzen ziren mazapan borobilak... Baina, hori bai, *aginaldoa* jaso ahal izateko gutxienez bi Gabon-kanta kantatu behar izaten genuen. Egurdiko 12tarako geron etxetara joan eta hura izaten zen poza. Txanponak eta mazapanak zituen txapeldun!!

Bazkalondoan herriko neska-mutil kozkor gehienok Goiko



Azkue Autoak

Estazioko kalea, 19
20750 ZUMAIA

Telefonoa: 861433
Fax: 861067

BALEZULO

**IMPORTATURIKO
ERROPA ETA ARTISAUTZA
INDIA- NIKARAGUA
GUATEMALA**

Basadi, 3 ZUMAIA



Erribera kalea Telefonoa: 861523
ZUMAIA

Plazan biltzen ginen kanpandorreko ordubitako bueltako kanpaiak hasi zai *Gomensagorako*. Ohitura hau zalantzarik gabe arrantzale herriarena zen eta oso aintzinatik etorriko zen, ze, gure gurasoek (1.900 inguruan jaioak) eta heuren gurasoek ere Gomensagon ibiltzen omen ziren. eta badirudi ohitura hau Zumaian bakarrik ospatzen zela. Gomensago arrantzale hau mendiko Olentzeroren antzekoa da. Kantuak hala dio behintzat.

***Gomensago
buru haundi
noiz harrapatuko
arrai hori
bart arratseko
ordubietan
itsasoaren
erdian!***

Batzuk diote Gomensago gomexa arraitik datorrela eta pertsonaia honek gomexak eta bixiguak oparitzen zituela. Dena dela, denok ordubietan bildu eta jauntxo, herriko alkate, artista eta komertzianteen etxe ataritarra joan, Gomensago bi, hiru edo lau aldiz kantatu, balkoitik janariz betetako otarkadak bota arte eta han ibiltzen ginen denok lurtean bueltaka txarri-burrukan.

Alkatea, "Hotel Amaya"koak, Karmelo Unanue, Juanito Arrospe, Bonifazio, Julio Beobide, Iñaxio Zueltzu.... eta abarrek nahiko materiale botatzen ziguten! Baina

guretzat balkoirik maiteena eta estimatuena On Bidal Parrokiako erretore edo parrokoarena izaten zen, baina ez On Bidal guretzat maitagarria zelako, ez, (bere aitortzak eta sermoi luze aspergarriak oso famatuak ziren), On Bidalek materialea bota beharrean dirua bakarrik botatzen zigulako baizik. "Umeak, umeeaaak! Hala, izan txintxuak eta jarri neskak alde batera eta mutilak bestera" esaten zigun txarri-burrukan ez gintezen nahastu, noski.

Eta oh! Hura gauza harrigarria eta pozgarria! Txanponez betetako eskukadak botatzen zizkigun! Han izaten ziren burrukak komeriak eta iskanbilak! Denok lurtean bueltaka. On Bidalek *perrotxikixak*, *perrondixak* eta *errialekoak* botatzen apart, tartean nahiko pezeta

rubia ere botatzen baitzuen. Eta nahiz eta *rubia* gehienak neskak zeuden aldera botatzen ahalegindu, alferrikakoa izaten zuen, dirua aidean ikusi orduko, denon nahastea ziurtatuta zegoelako!

Gomensago bukatu ta gero inbentarioa egiten genuen. Gero arratsaldean eta ilunabarrean zenbait talde naximentuarekin etxez-etxe eta tabernaz-taberna ibiltzen ginen gabon-kantak kantatzen. Gaueko 9tan afari ederra, turroia, mazapanak, oneko ardoa... afalondoko ipui, gertaerak, pasadizoak, kantuak... etab. Gero parranda, guraso, osaba eta izeko denak etxe batetan bilduz, lehengusu neska-mutil kozkor denok aldameneko mahai batetan... kantuz, parrez, algaraz... Bai, Gabon haiek bazuten zerbaite berezia!! ■



MENDI - ONDO
ELEKTRIZITATEA

Axular 14
20750 ZUMAJA

Telefonoak:
860074 - 861569

- ALARMAK
- ANTENAK
- Banakoak
- Kolektiboak
- Satelite bidezkoak
- Ateazain automatikoak
- Eta abar.



DORNUTEGI

ARMAIRU ENPOTRATUAK

Basoli Anzategia, 10 behean
Telefonoa: 862051

SUKALDEKO
ALTZARIAK

20750 ZUMAJA
(Gipuzkoa)

KOMIKIEN EKONOMIAZ HITZEGIN DEZAGUN.
KOMIKI GUTXI EGIN DAITEZKE FORMATO TXIKI HONEKIN.
BAINA BUENO



BESTERIK EZ IZATEAN ZERBAT EGIN DAITEKE...
*BOKADILLOAK A LA ERE EZIN DIRA SARTU.



KOMIKIAREN PLASTIKAK USTE DUT IRABAZI EGITEN DUELA (USTE DUT)
BESTE KONTZEPTU BAT.
BESTE KOMIKI EKONOMIA.




KOMIKIA

- BALEIKE



1995

OP



NEURRI HAU ERE
 GEHIEGIA DA.
 KOMIKIEN PERTSONAJI
 EN BIGOTEA
 HOBEAGO IGARRIZ
 GAIN EZ DUTE
 EZER ARGIRIK
 AZALTLEN.
 EGIA ESANDA
 EZ DA BATERE
 EKONOMIKOA
 JARRERA HAV.
 (...)

(...) ETA ZEROK
 IRAKURLEOK
 KOMIKIA BUKATZEAR
 DAGOEN HONETAN,
 GARBI DAUKAT, EZ
 DUZUELA EXPERI-
 MENTU HONI
 BURUZ EZER
 ULERTU.
 EZ LARRITU
 BEGIAURREAN
 DUZUEN HAU
 BAIT DA, KOMIKIEN
 EKONOMIAREN
 ADIBIDE BAT.
 © DANI → ☞




6 HEGAZTI BITXI

Amaitu berri den urte hau, oso urte interesgarria izan da hegaztizaleentzat, oso gutxitan edo inoiz azaltzen ez diren hegaztiak azaldu baitira. Batzuk lehen aldiz ikusi dira Zumaian, eta beste batzuk berriz, hainbat urte etorri gabe igaro ondoren, berriro azaldu dira. Hemen azaltzen dizkizuegu horietako batzuk.

ROSS-EKO KAIOA GAVIOTA DE ROSS

ROVOSTETHIA ROSEA
LARIDAE




Hegazti hau Artikoan bizi da eta oso gutxitan irteten da ipar polotik. Bizkaiko golkoan ikustea oso arraroa da. Burua eta lepoak zuriak ditu, lepoa inguratzen dion marra beltz batekin. Buztan gaina kuña tankerakoa du. Baina bere berezitasun nagusiena bularra arrosa kolorekoa duela da. Apirilaren 17an ikusi zen lehen aldiz eta pare bat egun igaro eta gero aldegin zuen. Zumaian ikusten den lehenengo aldia eta Euskal Herrian hegazti honei buruz oso-oso datu gutxi daude. Garai berdinean Txingudin beste bat ikusi zen, ziurrenik berdina.

Hegazti honen agerraldia izan daiteke urteko daturik garrantzitsuena, kantaurialdean ikusten den lehen aldia baita. Txirri arrea baino itxura arinagokoa da. Burua txikiagoa du, hegoak estuagoak eta lurrean dagoenean buztanaren atzetik irteten zaizkio. Hanka beltzak ditu, besape grisa eta hegoen azpikaldea marroi iluna du. 25 zmk luze du. Artikoko tundretan egiten ditu kabiak eta Ingalaterraraino irits daiteke. Apirilaren 5ean ikusi genuen lehen aldiz eta kanpotik etorritako ornitologoek baieztatu ziguten urre-txirri bat zela. Ekaitz handia zegoen eta nahiko nekatuta zegoela igertzen zitzaion, asko hurbiltzen uzten baitzigun. Ikusi genuen azken eguna apirilaren 11 izan zen.


URRE-TXIRRI CHORLITO DORADO CHICO

PLUVIALIS DOMINICA
CHARADRIIDAE



AMIAMOKO

BELTZA
CIGUEÑA NEGRA
CICONIA NIGRA CICONIIDAE



Hegazti hau desagertzeko zorian egon zen orain dela urte gutxi, baina bere babespenarekin populazioa gehitzea lortzen ari da. Amiamoko arruntaren antz handia du, baina burua, lepoa eta bizkar eta hegoak guztiz beltzak ditu. Moko, hankak bezela luzea du eta gorri kolorekoa. Hegan doanean hankak atzetik eramaten ditu, buztana baino luzeagoak direlarik. 94-96 zmk luze du eta hegotik hegora 2mra irits daiteke. Oso hegazti bakartiak dira eta oso zaila hauek Euskal Herrian ikustea. Abuztuaren 30ean 3 izan ziren Beduako paduran azaldu zirenak, baina egun berean aldegin zuten. Oso datu garrantzitsuak da, Zumaian lehenengo aldiz ikusi delako eta gainera 3 izan zirelako (gogoratu oso bakartiak direla).

ERROTA
ERROTA
OPIL - OKINDEGIA

Juan Belmonte. 39 - Tfno. 86 23 68
Erribera. 2 - Tfno. 14 30 01
ZUMAIÁ

BASADI
**ALBAITARITZA
KLINIKA**

DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL
- ALBAITARIAK -

LARRIALDIK
· 24 orduetan
· Zeure etxean
· Telef. 900-282828
Abonatu zbkia: 247790


Basadi, 7 behea
20750 ZUMAIÁ
Tel. 143310

Babestua dagoen hegazti hau, zerra, kantaerialdeko paduretan askotan ikusten da, baina beti oso talde txikitan edo bakarka. Arrak kolore politak ditu, burua berde iluna, moño handia, hego zuriak, hanka eta moko gorriak eta bular horixka du. Emeak berriz kolore itzaliagoak ditu, buru eta moñoa marroi argiak dira, eta lepoa eta atzekaldea marroixka. Ar eta emeetan berezitasunik nabarmena duten moño bikoitza da. Kabiak lurrean egindako zuloetan egiten dituzte. Bere elikagai nagusiak zomorro, ur-larba eta arrai txikiak dira. 1955tik gaur arte %60 gutxitu dira. Euskal Herrian ikusten direnak, pasean edo negua igarotzen daudenak dira, gehienbat kostaldean, Urdaibai eta Txingudin. Azken 5 urtetan Zumaian behin bakarrik ikusi da, 1994an hain zuzen eta eme bat zen. Abenduaren 3an ikusi zen lehen aldiz eta 9an azkenekoz, beti ere Santixon.

ZERRA

SERRETA MEDIANA


MERGUS SERRATOR
Familia ANATIDAE



ALIOTA HANDIA

COLIMBO GRANDE

GAVIA INMER
Familia GAVIIDAE



Hegazti hauek denbora gehiena itsasoan ematen dute, baina ekaitza dagoenean ur lasaietan babesten dira. 1981 urtetik babestua dago neguko umaldian. Burua, lepoa eta bizkarraren gaineko alde marroi iluna du; beste aldeak berriz txurixka. Arrak eta emeak berdinak dira. Bere luzera 72-74 zmkoa eta hegotik hegora 128 zmra irits daiteke. Kabiak irla txikietan eta lakuetakoz bazterretan egiten ditu. Elikagai nagusienak arraiak, larbak eta ur landaretza dira. Murgilari eta arrantzale trebea da; bere hegaldia berriz, oso astuna. Norbaitek izutuz gero murgildu eta metro askotara azaltzen da. Santixoko paduran ikusten den lehen aldia da Azaroaren 21ean, eguerdian ikusi genuen lehen aldiz eta ilunabarrean ere bai itsasora aldegiten. Beste batzuetan ikusi izan dira, beti itsaso txarrarekin, bai Txingudin eta baita Urdaibaian ere.

Antzarren arteko berezietakoa dela esan dezakegu. Oso gutxitan ikusten da gure kostaldean eta beraz oso datu gutxi ditugu hegazti honi buruz. Antzar arrunta baino pixka bat txikiagoa da. Aurpegia zuria du, lepoa eta sorbalda beltza eta bularra zuria. Hankak eta mokoa beltzak dira. Arrak eta emeak berdinak dira. Kabiak Artikoan eta tundretan egiten ditu nahiz eta oso klima gogorra egon. Bere elikadura arrai, ur-larba eta intsektutan oinarritzen du. Udazkeneko pasean banaka batzuk ikusi izan dira Lapurdin eta Gipuzkoan, baina oso gutxitan. Abenduaren 3an Santixoko paduran bat azaldu zen eta pare bat egun han pasa ondoren, Zuloagako antzarrekin elkartu eta oraindik bertan ikus dezakegu ziurrenik udaberria arte. Azken hau datu garrantzitsua da, normalean ez baita Ingalterra baino hegoalderago ikusten.

ANTZAR

MUSU-ZURI

BARNACLA CARIBLANCA

BRANTA LEUCOPSIS ANATIDAE



AXIER KIROLAK

Ortega y Gasset, 2
ZUMAIA

Telefonoa: 862206



BASUSTA
ERRETEGIA

M^a Dolores Aizpurua

Pantxita Etxezarreta, 25
Telefonoa: 862073

20750 ZUMAIA

BIZKOR
FOTOKOPIAK

Enkuadernaketak

Plastifikatzeak

Fax publikoa

Bulegoko materiala

Basadi 14, behea Tel/Fax:
ZUMAIA 143120

GERRARAKO JOSTAILUAK

Kaixo! Zer moduz Gabonak? Bakea opa dugun egun hauetan, guk, berriz, gerra eta militarismoari buruz hitz egingo dugu. Ez gustatzen zaigulako, noski, hitz hauek Gabonetako ohitura batzuei lotuta daudelako baizik ("PapaNoel", Erregeak, Olentzero eta noski jostailuei buruz ari gara).

Errege eguneko goizean kalean ikusten ditugun pistoladun "bakeroak" arkodun indioen aurka burukatzen, espazioko ametrailadora laserrak, gerrarako muñekoak, edo bideo jostailu bortitzak, militarizazioaren eragina zein handia den erakusten digute.

Bestalde, Olentzero eta Erregeen opariak aldatzeko beranduegi dela badakigu, Ekialdea urrutiegi baitago beste motatako jostailuen bila joateko. Hala ere zerbaitetarako balioko duelakoan gaude.

Jostailuak eta heziketa

Garai eta toki guztitako umeek jardueren beharren arabera jolasak moldatzen dituzte, mugitzearen beharra, ikusmiratu, hurbil dituen objektuak hartzea eta hauek erabili eta esperimantatu, sortzeko, harremanak edukitzeko, espresatzeko, ekintzak, ideiak, sentimenduak adierazteko beharra.

Ikuspuntu horretatik begiratuta jolasa umeari gehien gustatzen zaion gauza izateaz gain, bere funtzio psikiko, fisiko eta sozialak garatzen laguntzen dio. Horrela mundua ezagutzeko aukera du eta munduan duen zereginaren kontzientzia hartzen du, bere pertsonalitatea finkatuz.

Hori garrantzitsua da umeek denbora gehiena jostailuekin egoten baitira (6 urte arte

gehienbat) eta jostailuen bidez mundua irudikatu eta bereganatzen dute.

Arazoa ez da bakarrik jostailuak ematen duen munduaren irudia, baizik eta munduaren irudikatzea eta umearen partaidetza munduan noraino dagoen zehaztuta eta mugatuta.

Horrela, umearen heziketarako ez dira batere gomendagarriak gerra enfrontamenduak azaltzen dituzten jostailuak, oinarrian, mundua gaizto eta onen artean banatzen duen gizarte eredu konpetitibo, biolento eta errepresibo eta gizarte sistema baten iraupena dagoelako, boterea eta zapalketa gogoia berezko balioztat goresteaz gain.

Jostailu horiek mesfidantza, beldurra eta konpetitibitate harremanak indartzen dituzte eta umeentzat gerra zalantzagabeko



Auto - Konponketak

ELKAR



PEUGEOT

Estazioko kalea
20750 ZUMAIA Telefonoa: 860201

Kalitateko haragia nahi baduzu,
labeldun haragia erosi



Basadi auzategia 4B
Tlf: 862081

zerbait naturala eta logikoa bihurtzen dute. Halaber umeei gatazkak konpontzeko bide bakarra erakusten diete (biolentziaren indarrez) eta beste herriekiko harremanak izateko era bakarra (erraldoiak, indioak, estralurtarrak); harreman baketsuak eta ohitura trukeak bultzatu beharrean, berehalako lotura sortzen da herri desberdina eta herri etsaiaren artean.

Hala eta guztiz ere badaude gerrarako jostailuak defenditzen dituztenak hiru arrazoi argudiatuta: 1- Errealitatean biolentzia, gerra, konpetitibitatea daude eta umeak hauekin bizitzen ikasi behar dute, esistitzen ez duen mundu idealean mantendu gabe. 2- Gerrarako jostailuek umeen agresibitatea bideratzen dute. 3- Umeek berez eskatzen dituzten jostailuak dira.

Hiru arrazoi hauek ez dute pisurik heziketa aldetik: lehendabizi, umeari sinplifikatutako eta ona eta gaiztoen artean banatutako errealitatea azaltzen zaio. Errealitate hori partziala da, biolentzi fisikoa besterik ez delako azaltzen estrukturala alde batera utziz (beharbada fisikoaren arrazoiaren iturria). Horretaz gain, errealitatea isladatu nahi baldin badugu beste egoerak ere azaldu behar genituzke: suizidioa, drogak, heterossexualitatea, homossexualitatea, e.a.

Bestalde, umeei agresibitatea gerrarako jostailuen bitartez



bideratzen erakusten badiegu, beharbada heltzen direnean armen bidez egingo dute. Beraz agresibitatea bideratzeko era sortzaile eta hezitzaileak bilatu behar ditugu eta agresibitatearen arrazoiak bilatu.

Ez dira batere gomendagarriak gerra enfrentamenduak azaltzen dituzten jostailuak

Honekin batera, umeek panpinak eta pistolak eskatzen dituzte telebistan ikusten dutenaren eraginez, iragarkien eragina umeengan (eta guregan) izugarria dela ezin da ukatu (beste artikulu baten gaia izan zitekeen).

Laburtuz, gerrarako jostailuak oparitzen ditugunean joera biolentoak onartzen ditugu, arriskuen aurrean umeek duten sentsibilitatea galduarazten diegu

eta jarrera biolentoen eragin mingarriak jasaten ditugu. Emaizak ikusten ditugu: nola ahaztu Madrilan bi gaztek hildako pertsonaren kasua "rol" delakoaren jokoa zela eta? Estatu Batuetan joku honek gutxienez 45 hildako eragin ditu. Gure erresponsabilitatea hartu behar dugu honelako gauzak gerta ez daitezen.

Bukatzeko, Estatu Batuak aipatu ditugunez, herrialde honetako lehendakaria izandako Reagan-en adierazpena irakur dezazue: "orain dela gutxi, bideo jokuei buruz zerbait interesgarria ikasi nuen. Ume askok joku hauekin begia eta eskuaren arteko koordinazio sinesgaitza garatu dute. Aireko Armadak uste du ume hauek gure abioietan hegan egingo duten "artillero" ezinobeak izango direla."

Bakea opatzen dugu gerlariak prestatzen ditugun bitartean... ■

Taosa SURF DENDA

- * Bainujantziak
- * Surfeko tablak
- * Poliesterezko plastifikatzeak
- * Erropetako serigrafia
- * Toallak
- * Erropak

Erribera Kalea, 17 - 20750 ZUMAIA

BELARDENDA SIWA

Esther Blanco
OSTEOPATA-MASAJISTA
Basadi 5-C behea
Tlf: 143404 - 860012

Abortoa: eztabaida morala edo eskubide ukaezina?

Gizarteko sektore batek arrazoi moralak plazaratzen ditu abortoari ezetza emateko. Beste sektoreak berriz, norberaren eskubide ukaezina dela dio.

Hasi berria dugun urte honen lehen sei hilabetetan erabakiko da ziuraski abortoaren lege berria. Teoria mailan, era guztietako argudio moral, etiko edo erlijiosoak eman daitezke pentsakera ezberdinak defendatzeko. Praktikan berriz, arazoa gure bizitzan sartzen denean, ez degu ia inongo zalantzarik abortoaren irtenbidea onartzeko.

Baleike



Horrek ez du esan nahi abortoa ahuntzaren gaurdiko eztula denik. Baina bai zilegizko irtenbidea dela. Asko ez dira konturatzen benetako arazoaz, eta bizitza osoa ematen dute eztabaida moralekin beraien kontzientziak garbitzen, zerua irabazten,... tokatzen zaienerarte. Orduan, alaba gaixua hartu, eta goazen Londresera, turismo egitera...

Ama edo aita izatea zoragarria da, baina erabaki, desio baten emaitza izan behar du. Seme bat ezin da izan pekatien ordainez jasan beharreko penitentzia, nahiz eta batzuk hortara behartu nahi.

"Erabakiak amarengan izango du eragin handiena, eta ondorioz, berak izan beharko luke azken hitza"

Abortoak porrota suposatzen du, egia da. Baina noren eta zeren porrota? Errudun asko topa ditzakegu: informazio falta, antisorgailuen akatsa, inuxente-

keria, ..., porrota azken finean. Desiratzen ez den egoera bat jasan beharra. Eta horrelako egoerak etengabe gehitzen doazen bitartean, gu, aingeruen sexuaz eztabaidatzen. Arazo honek irtenbideak behar ditu. Irtenbide hauek legeak eman behar ditu, noski. Baina utzi ditzagun lege kontuak amaierarako.

Egia da batzutan, nahiz eta hasieran haurdunaldia ez nahi,



**OPTIKA
ZUMAIA**

Txomin Agirre Kaia, 1 Tel. 143057
20750 ZUMAIA

**ZALLA
TABERNA - ERRETEGIA**

- * Plater konbinatuak
- * Otartekoak
- * OILASKO ERREAK
(Enkarguak jasotzen dira)

San Pedro, 4 Tel. 862387 ZUMAIA

gero oso gustora onartzen dutela, eta ume hori opari eta ez zigor modura jasotzen dutela. Arazorik ez. Baina haurdunaldi hori ustegabekoa izateaz gain, ez bada desiratzen, ez bada onartzen... "mundua jauzi zaigu gainera!". Eta arrazoi askorengatik: amaren adinagatik, bikotearen harreman motagatik, lan-arazoengatik,... Horrelako egoeratan, haurdunaldi horrek era guztietako arazoak sortzen dizkionean amari, nork eta zeren izenean du erabaki bat inposatzeko beta? Tamalez, batzuk egiaren jabe sentitzen dira, izpiritu santuaren graziaz "lege ona" zabalduz. Baina inork ez du erabaki bat inposatzeko eskubiderik. Ez gurasoek, ez anai-arrebek, ez apaizek, ez politikoez, ezta ere bizitzaren izenean abortuari ezetz esaten diotenek. Morala hainbeste aipatzen duten horiei esan behar zaie, moralki, erabakitzeke eskubidea haurdun dagoen emakumeak bakarrik duela. Eta kitto. Irtenbide ximplea, baina inoiz ere ez erabaki erreza.

Operazio erreza

Komeni da hala ere, erabakia ahalik eta azkarren hartzea. Haurdunaldiaren etena askoz ere errezagoa da lehen astetan egiten bada. Operazioa ximpleagoa da, eta gainera merkeagoa. Beraz, hilerokoa atzeratuz gero, hobe da haurdunaldiaren proba egitea zai egotea baino. Abortoa gauzatzeko epe onena, azken hilabetekoa izan

zenuenetik kontatuz, seigarren eta zortzigarren asteen artean dago. Berez, operazioa oso ximplea eta erraza da. Tubo fin bat sartzen da emakumearen uteroan (anestesia-rekin) eta osatzen ari diren lehen zelulak xurgatzen dira. Bost minututako operazioa da, eta etxera joan zaitezke momentuan. Hurrengo egunetan badaezpada neurri batzuk hartu eta prest zaude eguneroko bizitzari ekiteko.

"Seme bat ezin da izan pekatuen ordainez jasan beharreko penitentzia, nahiz eta batzuk hortara behartu nahi"

Guzti hau oso erraza da, baina kontuz. Erabakia ondo pentsatu beharra dago, eta batez ere, esperientziarekin ikasi. Zer egin degun gaizki jakin behar degu berriro ere gertatu ez dadin. Kontutan izan emakumeak 14-15 urteetatik 46-50 urte ingururarte duela (gutxigorabehera) umeak izateko gaitasuna, eta epe luze horretan akats ugari egin ditzakegula.

Lege kontuak

Goazen ba lege kontuekin. Gaur egun, abortoa delitu kontsideratzen da estatu espainiarrean, hiru kasutan ezik.

Emakumearen bizitza arriskuan dagoenean, bortxaketa kasuan, eta umea arazo larriekin jaioko bada; hiru kasu hauetan bakarrik onartzen da abortatzeko eskubidea. Hau da gaur egun indarrean dagoena.

Baina aurten lege berri bat ezarriko dela esan du gobernua. PSOE-k egin duen lege proiektuaren arabera, laugarren kasu bat ere onartuko da. Hain zuzen ere emakumearentzat haurdunaldiak arazo larriak ekarriko balizkio familian, gizartean, edo maila pertsonalean. Lege honek PSOE eta IU-ren onspena eta PP, EAJ eta CIU-ren desadostasuna du.

Egia da lege berriak aurrerapauso bat suposatzen duela, baina funtsezkoa den gauza batean atzean geratu da. Oraindik ere emakumeari justifikazio bat eskatzen zaio abortatu ahal izateko. Ez da oraindik emakumearen esku geratzen azken erabakia hartzeko eskubidea. Hori profesionalak erabakiko du.

"Era guztietako arazoak sortzen dizkionean amari, nork du erabaki bat inposatzeko beta?"

Beraz, eta amaitzeko, argi dago norbaitek erabaki zuzenena hartzeko gaitasuna badu, hori emakumea bera dela. Erabakiak amarengan izango du eragin handiena, eta ondorioz, berak izan beharko luke azken hitza.

xirula



ARGAZKI ETA BIDEO
ERREPORTAIK
ERREBELATZEAK
KAMARAK
MUSIKA

TELEBISTA
BIDEO
HI-FI

Erribera kalea, z/g
Tel. 861705

20750 ZUMAIA



Larri
Informática

Basadi Auzategia, 10-A atzean Telefonoa: 862228 ZUMAIA

NESKAK ERE EZ DIRA HANKAMOTZAK FUTBOLEAN JOLASTEN

Hiru bat urte dira nesken futbol taldea sortu zela

Orain dela hiru bat urte, neska talde animotsu baten inizatibaz emakumezkoen futbol talde bat ateratzea erabaki zen. Hasiera batean, normala denez asko kostatu zitzairen futbol konpetizioan zerbait egitea. Jendea kuriositatez eta farre batzuk botatzea joaten zen beren partiduak ikustera. Urteak pasatu ahala ordea, futboleantzerki asko jokatzeko dutela erakutsi dute, aurtengo denboraldianigoera lortzea dutelarik helburutzat.

Baleike

Emakumezkoen futbol talde hau jaio zenean, ezin da ukatu espektatiba handi xamarra sortu zela herrian. Jendeak zirrara eta kuriositate handia zuen jakiteko nola jardungo ziren neska batzuk baloiari "patakoak" ematen. Giro honetan hasi zen jendea joaten beren partiduak ikustera.

Nahiz eta haseran ez ziren finegi aritu, berehala konturatu zen jendea neska hauek ez zihoaztela denbora pasatzera, baizik eta serietate osoz zebiltzala futboleant. Norbait espektakulo farregarri baten bila joan bazen, hobe luke zirkora joan balitz.

Orain, uste ustel hauek atzean utzi ondoren, jendearen erantzuna ona da. Zaletu dexente joaten dira norgehiagokak ikustera eta ondo pasatzeaz gain, jokalariei animo asko ematen die.

Talde hau sortu zenetik hiru

urte igaro direnean, Fernando Alejandro ekipoko entrenatzaileak egiten duen balorazioa, "oso positiboa da. Urtero-urtero pixkanaka bada ere, hobetzen goaz.

Lehen urtean ez ginen ondoegi ibili, nobatada ordaindu genuen". Hasiera zen eta jokalariek askok ordurarte futboleant ez zuen serio egin, "baina beno, modu batean edo bestean aurrera jo genuen. Bigarren denboraldian hobetuz joan ginen eta aurten ere bide horretatik jarraitzen degu; egunero zertxobait gehiago ikasteko asmotan".



Oso denboraldi bikaina ari dira burutzen nesken futbol taldea

goofy
HAUR JANTZIAK
Amaiako plaza, z/g
Telef. 860959
ZUMAIA

agustin
HARATEGIA
URDAITEGIA
Itzurun Zuhaitz-bidea, 1
20750 ZUMAIA Telefonoa: 862430

julio curiel
PELLOJERO
Erribera kalea
Telefonoa: 862334



Gizonezkoengandik ez dute ezer enbidiatzekorik.

Taldean bertan giro oso ona dute. Jokalari gehienak kuadrilla ezberdinetakoak badira ere, beraien artean oso ondo konpontzen dira, laguntasun handia dute. Harreman hau gainera, zelaitik kanpo ere mantentzen dute eta honek noski asko laguntzen du gero partiduetan emaitza onak eskuratzeko orduan.

Helburu nagusia mailaz igotzea da

Entrenatzaileak adierazi digunez, "aurten goialdean ibiltzeko ilusioa degu. Momentuz

nahiko ondo goaz eta ia azkenean lortzen degun aurrean izatea eta posible bada igotzea".

Aurreko denboraldian nahiko hurbil izan ziren eta aurten espero dute helburu hori lortzea. "Ez da erraza izango hala ere, igotzeko nahi hau beste hainbat taldek ere badute eta". Gainera, hauek ez dira Zumaiako taldea baino eskasagoak eta beraz, gogor burukatu beharko dute.

Edozein modutan esan beharra dago, posible dela edozein talde mailaz igotzea. Hau lortu daiteke talderen bat horretarako prest badago. Bitarteko eta batipat gogo handia edukitzea suposatzen

du honek, kontutan hartuz partiduak jokatzera urruti xamar joan beharko liriatekeela: Bilbora, Iruñeara e.a. Euskal Herriko herri eta txoko askotan jolastu beharko lukete.

Fernando Alejandrek azaldu digunez, "aurreko urtean posibilitate hau azertu genuen baina azkenean ezerezean geratu zen. Gure merituengatik igotzea nahi degu eta hortan gabiltza".

Taldeak etorkizun handia du, gaztea eta kalitatezkoa baita

Baina helburu nagusi honen alboan, "batez ere jokalariak urtero gustora eta gogoz joan daitezen futbolera jolastera nahi degu; seriotasunez, baina lagun giro baten inguruan disfrutatuz era berean".

Igotzea lortuz gero, Liga Nacionalean arituko liriateke, Euskal Herriko talde indartsuenera aurka hain zuzen.

Zumaiako taldeak etorkizun handia du, gaztea eta kalitate handikoa da. Gainera, badirudi hurrengo urteetan ere jarraikotasun bat izango duela gero eta neska gehiago animatzen ari baitira futboleko jokatzera.

Zeinek jakin, agian hemendik urte batzuetara talde hau Estatuko onenekin ikusten degu konpetitzen. Zaila da, baina ez ezinezkoa. ■

KOSTA  GAS

GAS ETA
KALEFAZIO
INSTALAZIOAK

Etxezarreta, 6 • Tfnoa 86 10 78 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

expert 

ELEKTROGAILUAK

Mertxe Aizpurua
expert eta
Repsol-Butanoren
Banatzaile Ofiziala

ITZURUN



KIROLOAK

Amaiako plaza, 13
Telef. 860758
20750 ZUMAIA

27

Urtarrila

DIPOSITIBA EMANALDIA

Jabier Albisturrek Argeliari buruzko diapositiba emanaldi bat eskeiniko digu, Foronda Kultur Etxean, arratsaldeko 7,30tan. Beste zereginik ez baduzu azaldu zaitetz, merezi du eta.



IRAKURKETARAKO AUKERAK

Aurreko zenbakian Anjel Lertxundiren obraren aipamena egin ondoren, hil honetan beste autore ezagun baten berri izango duzue, hain zuzen **JOSEBA SARRIONAINDIARENA**. Liburutegian bere idazlan guztiak ez badaude ere, segidan duzuen zerrendan bere narratiba eta poesi lan gehientsuenak azaltzen zaizkizue.

Narrazioak	Elkar (1983)
Ni ez naiz hemengoa	Pamiela (1985)
Atabala eta euria	Elkar (1986)
Ifar aldeko orduak	Elkar (1990)
Hezurrezko xirulak	Elkar (1991)
Han izanik hona naiz	Elkar (1992)
Gartzelako poemak	Susa (1992)

Urtarrila


1.go hamabostaldia

UROLA EZAGUTUZ

Urolaldea jendeari hobeto erakutsi asmoz, Azkoiti, Azpeiti, Zestoa eta Zumaiako herriek "Urola ezagutuz" kanpaina martxan jarri dute. Honetarako, hainbat ibilaldi txiki antolatu dira. Ibilaldi bakoitzak bi gidari izango ditu jendea orientatzeko asmoz.

Hiru eratako ibilaldiak izango dira: Kultur, ingurugiroko eta ekintzazko ibilaldiak.

Izen ematea 147010 telefonoan, Marian andereñoaz galdetuz, goizeko 7'30tik 14'00 arte.



AIZPURUA

LIBRERIA
R U D E N D O P A R I A K

Aita-Mari Auzategia, 17
Telefonoa: 861569
20750 ZUMAIA

Opari artikuluak

algorri

Lurrindegia



Erribera kalea, 5 ZUMAIA Telefonoa : 862398



Mendaro Marinela, 3 behea
Telefonoa: 143395 ZUMAIA

ERTZ

INFORMATIKA

- * KONPUTAGAILUAK
- * OFIZINAKO TRESNAK
- * AKADEMIA

NAXIMENDU XELEBREA

ZUMAIA 1994-12-23

Maialen Lujanbio

1

"Nazimendu bat egin ezazu"
nik entzun det ze arraio
nere belena orain nahi nuke
tabladu gainera io
Irazu nere Niño Jesus da
laster behar duna jai
demoniuan antz gehio dauka
baina ze egingo zaio



4

Nere San Jose bilatzerakoan
badabilkit mila truko
hori Sukiai tokatzen zaio
bera baitaukat gertuko
espirituai esaten ai da
denak zerate lekuko
"eskapatu zait ama Birjina
berriz ez da eskapatuko"

2

Gure espirtu santuak ein zun
benetan obra lizuna
Ama Birjinai jarriko diot
soineko luze txukuna
Silveira degu Ama Birjina
Espirituan laguna
hau* kulunkatu egin beharrean
astindu egiten duna.

(* Irazu, hau da, Niño Jesus.

3

Niño Jesusek berotasuna
ere beharko du, tira
eta Jon Maia bota behar det
eskubiko alderdira
modernizauta dago belen hau
jarri zaitzte begira
orain mandoak jartzeko partez
jirafak jarri behar dira

5

Egin ditugu gure San Jose
Jesus eta gainontzeko
baina opari emaileren bat
falta omen da trantzeko
gure Amaia Olentzeroa
txiki samarran antzeko
gaur hiru asto ekarri ditu
opariak ekartzeko.



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA AUTOAK

Juan Belmonte, 45
ZUMAIA

Telefona: 861485
Fax: 143143

W G U Z K I
PUB



KOKTEL
BEREZIAK

Basadi Auzategia
9-A 2-B
ZUMAIA

ITSASKI

SUPERMERKATUA

Urumea kalea, z/g
ZUMAIA



**JUSTA
TABERNA**

**EGUNEROKO
BAZKARIAK**

Erribera kalea 20, Zumaia

KALARI **TABERNA**

JATETXEA

- * Eguneko menua
- * Plater konbinatuak
- * Kaxuelak - Otartekoak

Erribera, 16 Tfnoa: 860660 ZUMAIA

ANESTESIA, ESPERIMENTU BORTITZA

"Gorrotoaren ahotsa" da atera duten lan berria

° Benetan zer diren eta estiloa definitzea, dexente kostatu zaio talde zarauztar honi. "Gorrotoaren ahotsa" izeneko diskak, aintzinean eginiko lana pixka bat baztertzen dute, pausu bat aurrera emanaz. Iragana ez dute zeharo ahaztu, hori ezinezkoa da, baina argi dago edozein proposamen gainditzen dutela.

Baleike



"Gorrotoaren ahotsa", propo-samen berri baten hasiera da. Hamalau abesti dituen lan honekin, "trash"etik hasi, "grind-core" a ikutu eta "punkia" edo "hard-core" arekin nahasturiko kokteil birrintzaile bat

osatzea lortu dute. Bere karreraren garai onenak direla usteaz aparte, musiko hauen eboluzio garaia hasi dela nabaritzen da.

Bost urte daramatzate elkarrekin lanean. Bere barne egitura fisikoa astintzen hasiz gero hauts asko aterako degu, kalitate hoberena daraman hauts diztirtsu asko. Pertsona bakoitza mundu desberdin bat da musikagintzan.

**Taldeak bost urte
daramatza musika
munduan**

**IHINTZA
TABERNA**

Ortega y Gasset, 3
Tfnoa: 860472
ZUMAIA

**TXALAPARTA
OPARIAK**

Angeles Sorazu, 2
20750 ZUMAIA
(Gipuzkoa)

Telf. 14 30 89
Fax. 43 06 37

JE MAR

LOREDE NDA

LANDAREAK
LOREAK
HAZIAK
ZERAMIKAK

Erribera, 1 Telefonoa: 860375
20750 ZUMAIA

Mikel, kitarra eta ahotsa, Negu Gorriak talde bikain eta ezagunarekin moldatzen du bere bizitza. Dani, baxua, beste proiektu batean ere parte hartzen du: Brigada Slam deituriko taldean; kitarra joaz, hain zuzen. Neil ahotsak aldiz, Escombros eta Inem taldeetan tartekatzen du bere eztarria.

Azkenik, Belokik (bateria), Lu (Ok Corral) eta Arturoekin (Nuevo Catecismo Catolico) batera, "Las Cagartas" izena duen iraganeko arrakasta hori astintzen dute.

"Jarraitu duten bidea bizkortasunean eta lasaitasunean datza"

Nola molda litekeen guzti hau batera eta duen edukia nola mantentzen duten jakitea ez da erraza, baina horrelako musikarien aurrean, ez da harritzekoa guzti honek duen gorputza edukitzea.

Jarraitu duten bidea bizkortasunean eta lasaitasunean datza. Bi konstante ezberdinak dira, baina Anestesiaren kasuan armonia berezi batean eramatea jakin ahal izan dute. Bizkortasuna, zeren horrela sentitzen dute daukaten motibazio hori aurrera jarraitzeko eta lasaitasuna, zeren Anestesia ez da bizitza irabazteko bide bat, baizik eta bizitzeko beste era bat; hori bakarrik.

MAKETAK

MORAU

"BAKA LAU"

Gazte jendearen artean oso zaila da kitarra akustiko bat harturik musikaren munduan sartzea, noski, zarata gutxi ateratzen baitu (kantautore) batek. Baina batzuetan gehiagorik behar ez dela erakutsi ziguten Morau eta Xabier Montoiak joan den abenduaren 15ean. Bi kantari hauek bakoitza bere abestiekin beste mundu musikal bat aurkeztu ziguten bertan bildu ginen guztioi. Ez al da horrela? Morau edo Andoni Tolosak bere abesti ezagun eta berrienak maketa batean bildu ditu "Baka Lau" izenpean. Zazpi dira bertan azaltzen diren abestiak, Astigarragako "Zipotza" elkartean eman zuen kontzertu baten grabatuak izan zirenak.


"Aliziarrena" abestiak berotzen du "Baka Lau"ren sarrera eta ondoren Morauren abesti ezaguna dator "Amodio Istoriaoa", noski elkartean bildu zen jendearen parre artean.

Norgehiagotasunaren alde txarrak "Sandwitxarena" abestian salatzen ditu sistemari kritika gogor bat eginaz. "Blanka" eta "Nork Daki"-k jarraitzen diote aurrekoari. Ruper Ordorika eta J. Sarrionaindiaren bertsio batez jarraitzen du "Galtzetan gordetzeko koplak"

deguna. Maketa ixten, mezu sakona duen kanta bat dator: "Mundua aldatu dezagun".

Abesti hauek goxotasuna alaitasuna eta salaketa nahasturik Morauren maketa barezia osatzen dute.

Ez dugu bakarrik musikaria gure Morau, baita ere bere ahotsa arratsaldero entzun dezakegu munduko musikaren inguruan Apur Terdi irratsaioan. Baita beste talde batzuentzat hitzak lantzen ditu adibidez Ama Sayren "Gaua" abestian hitzak bereak dira. Entzun ezazu bere musika, ziur aski lagun bat aurkituko baituzu.



**TXOKO
TABERNA**

**Artadi auzoa
ZUMAIA**


*Jesuskoa
Fartetxea*



Aplaza 86-17-39 • Urdin Zumaia




GURUTZEGRAMA



EZKER ESKUIN: 1.- Santu izatearen tasuna. 2.-Soroak. ...egin, begiratu. 3.- Kaltzioaren oxidoa. Norentzat atzizkia. 4.- Haizea sortzeko tresna. Lehenengoa. 5.- Baldintzetan. Bizkaieraz, berriak. 6.- Bokala. Bizkaieraz, omen. Aezkoako. 7.- Higuinak. Bizkaieraz, upela. 8.-Mesedez. Bostehun. Iridioa. 9.-Apartatzeko zerga. Gizakiaz gaineko izaki, ahalmen eta botere bereziz hornitua. 10.- Espazioan eta denboran diren gauza eta gertakari guztien multzoa.

GOITIK BEHERA: 1.-Han-hemen barreiatu. 2.- Emea gurasoekiko. Aranondoaren fruitu. 3.- Zein lekutara. Hegazti mota. 4.- Burdinbide, Boroa. 5.- Irinezko orea uretan egosia. Gizon izena. 6.- Herri hizkeran, eta. Haustearren onomatopeia. Ez eme. 7.- Antzezleri. Niri, du. 8.- Sufrea. Zauzka. Alderantziz, ezta. 9.- Uso, hitz elkarketan. Azpian dagoena. 10.- Musika zeinuak. Garaia.

HIEROGLIFIKOAK



Nortzu irtengo dira gaur plazara?



Nola lapurtu zieten dirua?

NEGAR EGITEKO TXISTEA

Ostalaria


Despistatuta Joxemari Donostiko jatetxerik gares-tienean sartu da. Afari normala egin ondoren kontua ekarri diote: 8.000 pezeta.

-Zortzi mila pezeta afari honegatik? Gutxienez, kolegak izanik deskonturen bat egingo duzue, ezta?

-Zu ere ostalaritzakoa al zara ba?

-Ez, ni ere lapurra naiz!

Huntza, o.k.



DISEINUA
MANTENUA
ERABERRITZEA
ZUHAITZ, ZUHAIKKA
ETA FRUITONDOEN
KIMAKETA

Iorazaintza S. Jose, 8-d Tlf: 143079

GURE TXOKOA

TABERNA

Kaxuelita eta pintxo
ezberdinak

San Pedro kalea Zumaia

OHARRAK

Ordenadorez lanak pasatzen ditut. Idazkera ulerkorra eskatzen det. Tlf: 147948 (Joxe Mari)

AGURRAK

Buitrakerreko kamiseta nahi dunak olarritoi eskatu!

Beatziak eta laurden eta kuadrilla: Itziarren herria sortzen eta gero beti Zumaian.

Apolo, no more!

Patxi, Itziar eta Rubeni, animo eta eutsi lortuko dugu eta. Gurea da garaipena. Zumaiaiko jarrai.

Animo hondartzako kukaratzak, aurtten dinosaurio zaharrekin betiko bukatuko diagu eta!

Edu, Maso eta Talo: Ito arte txima luziekin ibiliko zeate. Eta perillarik gabe!!

SALEROSKETAK

SUZUKI MAXI 50 saltzen dut. Urtebete inguru, km. gutxi, eta kondizio oso ona. Ordaintzeko erraztasunak. Tlf: 199267


ALDIZKARI HONEN SALMENTA PUNTUAK

- Jesuskoa
- Errota
- Ogi Berri
- Arkupe okindegia
- Alai janaridenda
- Aizpurua liburudenda
- Olano liburudenda
- Erkibe
- Nikol kafetegia
- Inpernupe taberna
- Zalla erretegia
- Foto Gar



Argazki honetan ikusten duzuen neskatxa polit honek Ane Miren Serrano izena du. 6 hilabeterekin, Baleikereren harpidedun gazteena dugu. Oso gustokoa du, batez ere natura eta antimilien artikuloak, oso errez puskatzen diren orriak omen dira eta...

SOLOZABAL AUTOESKOLA



Gidatzeko karnet guztiak

- Klase teoriko zein praktikoak norberak nahi dituenean
- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabiltita
- Merkantziak eta bidaiariak garaiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastamak.

P. Etxezarreta 19 - Bis Tlf/Fax: 861416

ARGIA



Itzurun, 1 - Telf. 86 09 93
ZUMAIA

JUARISTI JATETXEA

- * Arrainak eta haragiak aukeran
- * Eguneko menua
- * Jangela klimatizatu

Basadi Auzategia, 10 ZUMAIA Tfnoa: 861853

Lehiaketa

Argazki honetan garai batetik gaur egunera zer aldatu den asmatzen dutenen artean, **Txapartegi gozotegiak** eskeinitako tarta eder bat zozketatuko dugu. Utzi zure erantzuna eta datuak Foronda, ONCEko kabina ala Txapartegi bertan **urtarrilaren 20a** baino lehen, eta zorte on!



Harpidetzak - 95

Aurten Baleike aldizkaria zeure etxean jaso nahi badezu, zure izen-abizen, helbidea eta telefonoa paper batean jarri eta 1000 peztekin batera, utzi ezazu Forondan edo O.N.C.E.ko kioskoan.

IZAN ZAITEZ HARPIDEDUN!!